

## **LAN MERKATU ARRUNTEAN TOKIAN TOKIKO ENPRESEI ZUZENDUTAKO KONTRATAZIO LAGUNTZA PROGRAMAREN ESKAERA ARAUTZEKO OINARRIZKO PROZEDURA. DEIALDI HAU ENPLEGU SUSTAPENA BULTZATZEKO TOKIKO EKINTZEN LAGUNTZEN DEIALDIAN KOKATUA DAGO (BOPV 2018/06/20)**

### **1. Araudi arautzailea**

- Enplegu Sustapena Bultzatzeko tokiko ekintzen laguntzak, 2018ko ekainaren 13ko Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzu Zuzendari Orokorraren ebazpenean onartua. (EHAA 2017/06/20)
- 38/2003 azaroaren 17ko Diru-Laguntza Orokorraren legea. (BOE 18/11/2013)
- Ekainaren 21eko 887/2006 Erreal Dekretuaren Dirulaguntza Orokorraren Araudiaren Legearen onarpena. (BOE 25/07/2006).

### **2. Oinarrien helburua**

Tokian tokiko enpresek lan merkatu arruntean Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatutako 20 langabetuen kontrataziorako laguntzen onarpenari buruz informazioa ematea.

### **3. Pertsona onuradunak**

Kontratazioaren onuradun izango diren pertsonak, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Langabezian egotea eta Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuan lan eskatzaile bezala inskribatuta egotea.
- Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia erroldatuek. .
- Gutxienez kontrataturiko %40koa emakumezkoa izango da: 8 kontratazio.

Kontratazioaren unean, hautagaiek lehen aipatu ditugun baldintzak bete beharko dituzte.

Dirulaguntzaren kontratazioa ez zaio zuzenduko enpresa arduradunaren edo enpresan zuzendaritza postuak betetzen dituen edo enpresen administrazio organuen kide diren ezkontide, ahaidetasun eta odol ahaidetasuna duten pertsonen, ezta bigarren mailako ahaidetasuna duten pertsonen ere.

Ez da diruz lagunduko honako hau kontratzea: Enpresa batek langile bat berriz kontratatzea baldin eta aurreko deialdietan laguntza jaso badu.

#### 4. Enpresa onuradunak:

4.1 Lan merkatu arrunteko edozein sektoretako enpresek parte har dezakete.

Enpresa onuradunek bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

- Erakundeen helbide soziala Oarsoaldea eskualdean kokatua egotea.
- Enpresaren helbide soziala Oarsoaldea eskualdetik kanpo egonik, kontratazioa Oarsoaldea Eskualdeko lantoki baterako izatea.
- Egingo diren kontratazioak enpresaren jarduerarekin zuzenean erlazionaturiko postuetan izatea.
- Foru ogasunean zerga betebeharretan egunean egotea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren betebeharretan egunean egotea.

4.2. Erakunde onuradunek, dirulaguntza hauek jaso ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

Kontratatua izango den pertsonaren kontratazioak, 3 hilabete lehenagoko epealdian enpresarentzat enplegu sorkuntza garbia suposatuko du.

3.atalean aipatu ditugun baldintzak betetzen dituzten langabetuak kontratatu eta gizarte segurantzako erregimen orokorrean altan ematea.

Base hauetako 9.atalean dokumentazioa eskatutaren arabera enpresek kontratazio eginak ziurtatu behar dituzte.

#### 5. Diru-laguntzarako eskaeren aurkezpena

Diru-laguntza eskaerak (I ERANSKINA), Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Agentziaren Enplegu bulegora bidali beharko dira email honetara: [olibet@oarsoaldea.eus](mailto:olibet@oarsoaldea.eus), oinarri hauek Oarsoaldeako web orrian publikatzen direnetik eta onartu diren dirulaguntzak betetzen diren arte.

I ERANSKINA-ren bidez dirulaguntza eskaera egin ondoren, Oarsoaldeak eskaera jaso bezain laster ebatziko du, eta momentu horretatik enpresak hilabete bateko epea izango du kontratua gauzatzeko.

Eskaerak aurkezteko epea diru laguntzaren helburu diren 20 lanpostuak betetzen direnenan amaituko da.

Kontratazio laguntzen onarpena, eskaeren aurkezpenak jaso ahala egingo dira, beti ere deialdiko Oinarrietan azaldutako baldintzak betetzen dituztenean. Enpresa bakoitzeko gehienenezko kontratazio kopurua 3 pertsonatakoa da.

3.puntuan zehaztutako baldintza betetzen ez dituzten eskaerek, hau da, kontratatutako pertsona eskualdean erroldatuta egotearen derrigortasuna, erreserban geratuko dira. Eskaerak aurkezteko eskaera data bukatzeaz 2 aste falta direnean eta plaza guztiak bete ez balira, eskaerak jasotako hurrenkera kontutan hartuko da.

Behin, 20 lanpostuak betetzen dituzten eskaerak onartutakoan, beste eskaerak erreserban gorde ahal izango dira aurreko eskaerak gauzatu gabe badaude edo kontratazioaren bat bere osotasunean edo zati batean gauzatu ez balira osatzeko.

Interesdunek kontratazio eskaerak aurkezteak, oinarri hauen edukien onarpena eskatuko du.

Diru-laguntzaren onarpenaren jakinarazpena, erakunde onuradun eta Oarsoaldearen arteko hitzarmen batean sinatuko da.

## 6. Kontratazio mota eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Diruz lagunduko diren kontratazioek gutxienezko 6 hilabeteko iraupena izan beharko dute, eta kontratazio epea 2018ko ekainaren 21a eta 2019ko ekainaren 30a bitarteko epea izango da.

Edozein kontratu-mota onartuko da, prestakuntza eta ikasketarako eta praktiketarako kontratua salbu. Azken eguna kontratazioak egiteko, izango da: [2018/12/31](#)

- 6 hilabete edo gehiago iraupena duen lanaldi osoko kontratueterako 6000 euro gehienezko laguntza. Kontratu kopurua: 12
- 6 hilabete edo gehiago iraupena duen lanaldi osoko kontratueterako 6000 euro gehienezko laguntza, emakumeei bideraturikoa. Kontratu kopurua: 8

Dirulaguntzaren azken kopuruak, ezingo du soldata kostuen %75 gaintitu, kontratu amaierako indemnizazio kostuak eta kontratatutako langilearen Gizarte Segurantzako kostua barne.

Proiektuetarako diru-laguntzak hauek ezin izango dira bateratu kontzeptu eta helburu berberetarako beste administrazio publiko batzuek edo beste erakunde pribatu edo publiko batzuek emandakoekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariekin izan ezik.

## 7. Baliabide ekonomikoak

2018 ekitaldirako Kontratazio Laguntza Programarako zuzendutako funtsak 120.000 euroakoa da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 2018ko ekainaren 13ko ebazpenean enplegu sustapena bultzatzeko tokiko ekintzen programan onartutakoa.

## 8. Akatsen zuzenketak

Diru-laguntzen eskaerek bete beharreko baldintzak beteko ez balituzte, edo ez bada eskatutako dokumentazioarekin batera aurkezten, interesatuei 5 egun baliodunetan faltak zuzendu edo dokumentuak aurkezteko esango zaie. Horrela egiten ez bada, bertan behera utziko da eskaera, betirako artxibatuko delarik.

## 9. Diru- laguntzaren ordainketa eta justifikatu beharreko dokumentazioa

Diruz lagundutako lan-kontratuak diru-laguntzaren epealdia amaitu aurretik iraungitzen badira edo aurreneko hamabi hilabeteetan kontratu mugagabeen kasuan, itzuli egin beharko da emandako diru-laguntza, eta dagokion prozedura izapidetuko da, 14. eta 15. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Nolanahi ere, kontratua iraungitzeko arrazoia probaldia ez gainditzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izan bada, lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzen onuradunek ez dute laguntza itzuli beharrik izango deialdi honetan kontratatua izateko baldintzak betetzen dituen pertsona bat kontratatzen badute beste bat ordezteko eta ordeztutako pertsonaren kontratua bertan behera uzten badute, beti ere kontratazio-aldien batura hasierako kontratuarena bada gutxienez.

Diru-laguntzen ordainketa, ordainketa bakarrean egingo da, honako dokumentazioa aurkeztu ondoren: Aurkezteko epea (diruz lagundutako kontratua amaitzen denetik hilabete bateko epea)

Kontratua izango den pertsonari dagokionean:

- Kontratatua izango den pertsonaren NANA.
- Kontratatua izango den pertsonaren Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuko lan eskatzaile inskripzio agiria ( DARDE) edo lanbideko alta eta bajaran agiria.
- Kontratututako pertsonaren bizitza laborala.
- Lan kontratuaren kopia eta Gizarte Segurantzaren Alta.
- TC1 eta TC2 kontratazio hilabetei dagokien dokumentuak.

- IDCaren kopia ( Kotizazio Datuen Informea).
- Kontratazio hilabetei dagokien nominen kopiak.
- Ahaidetasun ezari dagokion ziurtagiria.

### Enpresari dagokionean

- Arduradun legalaren NANaren kopia eta ahalordetze eskriturak.
- Zerga ogasun eta Gizarte Segurantzaren bete beharretan egunean dagoen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria, kontratatutako pertsonaren inkorporazioa baino 3 hilabete lehenagoko plantilaren batzbestekoarekin. ( ziurtagiri hau on-line jaso daiteke).

Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziak, behin enpresaren dokumentazio guztia berrikusi eta onartu ondoren, 2019ko irailaren 31 baino lehenago egingo ditu diru-laguntzen ordainketak.

Interesatuta dauden enpresak, Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziarekin jar daitezke harremanetan, 943.510.200 telefonoan. ( Astelehenetik ostiralera 9:00-14:00).

Oinarrietan espreski jasota ez dagoena, Enplegu Sustapena Bultzatzeko Tokiko Ekintzen laguntzen deialdiaren barne, LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI OROKORRAREN EBAZPENean egongo da. (2018ko ekainaren 20ko EHAAn publikatua).